Alcalde - Alkatea

D. Miguel de los Toyos Nazabal jauna.

Tenientes de Alcalde - Alkate Ordeak

D. Alberto Albistegui Zamacola jauna.

D. Pedro Escribano Ruiz de la Torre jauna.

Dña. Ana Telleria Echeverria andrea.

D. Arcadio Benítez Dávila jauna.

D. Francisco Javier Lejardi Galarraga jauna.

Concejales - Zinegotziak

Dña. Idoya Sarasqueta Aramburu andrea.

Dña. Patricia Arrizabalaga Larrañaga andrea.

Dña. Maria Isabel Larrauri Arriaga andrea.

D. Jon Iraola Iriondo jauna.

Dña. Igone Lamarain Cobo andrea.

D. Josu Cristobal Churruca jauna.

Dña. Leire Abanzabalegui Aranguren andrea.

D. Gorka Errasti Bernedo jauna.

Dña. Ana Francisca Astigarraga Arrizabalaga andrea.

Dña. Eva Juez Garmendia andrea.

D. Jaime López de Guereñu Urisabel jauna.

Dña. Maria Mercedes Garate Larrañaga andrea.

D. Josu Mendicute Rodríguez jauna.

Dña. Maria Elena Ibañez Anuncibay andrea.

Dña. Maria Jesús Aguirre Unceta Andrea.

Secretaria General - Idazkari Orokorra

Dña. Arantzazu Echániz Petralanda andrea.

Eibarko hirian, bi mila eta hamazazpiko apirilaren hogeita lauan, arratsaldeko zazpi eta erdiak izanik, Udal Batzarra bildu zen ohiko bileran, Udaletxeko Batzar Aretoan, goian aipaturiko jaun-andreek osatua.

En la Ciudad de Eibar, a veinticuatro de abril de dos mil diecisiete y siendo las diecinueve horas treinta minutos, se reunió en sesión ordinaria el Pleno Municipal, en el Salón de Plenos de la Casa Consistorial, formado por los/as señores/as anteriormente mencionados/as.

Ez da agertu Lamarain Cobo Andrea.

No asiste la Sra. Lamarain Cobo.

Alkate jaunak bilerari hasiera eman dio eta eguneko aztergaiaren atal bakarra irakurri da.

El Sr. Alcalde declara abierta la sesión y se procede a la lectura del primer punto del Orden del Día.

<u>1. ATALA</u>
<u>2017ko otsailaren 27an Udalbatzak egindako bilkurako akta-zirriborroa onartzea.</u>

<u>PUNTO 1º</u>
<u>Aprobación del borrador de acta correspondiente a la sesión de Pleno Municipal celebrada el 27 de febrero de 2017.</u>

2017ko otsailaren 27ko bilerari dagokion aktaren zirriborroa botazioan jarrita, ondorengo emaitza honekin ontzat eman dute eta akta moduan utzi.

Sometido a votación el borrador de Acta correspondiente a la sesión de 27 de febrero de 2017, se aprueba con el siguiente resultado, siendo elevada a acta:

Baiezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Votos afirmativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Ez dago ezezko botorik.

Abstentzioak: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren -Lamarain Cobok delegatutako botoa ere eman du-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU)., Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: ninguno.

Abstenciones: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - quien ejerce voto delegado por Lamarain Cobo-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Aguirre Unceta (IRABAZI).

<u>2. ATALA.</u> Mezuak eta jakinarazpenak.

Ez da ezeren berri eman.

<u>PUNTO 2º.</u> Despachos y comunicaciones.

No se da cuenta de ningún despacho o comunicación de interés.

<u>3. ATALA</u> Premiak.

Idazkariak dio ez dagoela administrazio-gairik edo urgentziatzat hartu beharreko gairik.

<u>PUNTO 3º</u> Urgencias.

Afirma la Secretaria que no hay ningún asunto administrativo a ser tratado o como urgencia.

<u>4. ATALA. Podemos Ahal Dugu Eibar-en mozioa, Eibarren, eskoletako jangelak opor sasoian zabaltzeko.</u>

Idazkariak dio apirilaren 6an Podemos Ahal Dugu Eibar-ek mozio bat aurkeztu zuela, eta, gerora, PSE- EE, EH Bildu, EAJ/PNV eta Irabazi taldeek sinatutako erdibideko mozio bat aurkeztu dela, Podemos Ahal Dugu Eibar proposatzaileak

<u>PUNTO 4º Moción de Podemos Ahal Dugu Eibar sobre la apertura de comedor escolar en Eibar, durante el período vacacional.</u>

Indica la Secretaria que con fecha 6 de abril Podemos Ahal Dugu Eibar presentó una moción y que posteriormente se ha presentado una moción transaccional suscrita por los grupos PSE- EE, EH Bildu, EAJ/PNV e Irabazi, así como por

berak ere sinatu duena. Horixe da irakurriko duena.

"Erdibideko mozioa podemos-ahal duguk aurkeztutako mozioari, eibarren, opor sasoian, gutxienez eskola-jangela bat zabalik egon dadin.

1- Eibarko Udalak eutsi egiten dio bere konpromisoari, beraz, hartu behar dituen neurri guztiak hartuko ditu gure herrian umeen malnutrizio-egoerako kasurik izan ez dadin.

2- Helburu hori lortzeko, gure herriko ikastetxeetan dagoeneko ezarrita dauden prozesuekin batera, Eibarko Udalak eta ikastetxeek formula batzuk bilatuko dituzte familiei informazio nahikoa eman dakien; familiak eurak izan daitezen dauden baliabideez baliatzeko eskaera egiten dutenak.

3- Uztailean izaten den Oporrak Afariketan programa abuztuan ere emango da taldeak osatzeko eskaera nahikorik egonez gero."

Aurrenik, Errasti jaunak hartu du hitza. Esaten du bere Taldea gertuago dagoela talde guztiek eta Podemos Ahal Duguk adostu duten erdibideko mozio horretatik;

la proponente Podemos Ahal Dugu Eibar, que es a la que va a dar lectura:

"Moción transaccional a la presentada por Podemos Ahal Dugu Eibar sobre la apertura, como mínimo, de un comedor escolar en Eibar durante el período vacacional.

1. El Ayuntamiento de Eibar se reafirma en su compromiso y voluntad de adoptar todas las medidas necesarias para que, en nuestra ciudad, no se den casos de niños y niñas en situación de malnutrición.

2. En aras de lograr ese objetivo, junto con los procesos ya establecidos con los centros escolares de nuestra ciudad, el Ayuntamiento de Eibar y los centros, buscarán fórmulas para trasladar a las familias la información suficiente para que ellas mismas puedan solicitar beneficiarse de los recursos existentes.

3. La oferta de Oporrak Afariketan que se ofrece durante el mes de julio se ampliará al mes de agosto en el caso de que haya demanda suficiente para formar los grupos."

Interviene en primer lugar el señor Errasti quien afirma que su Grupo se identifica más con la moción transaccional que se ha consensuado por todos los Grupos y

eta, bere Taldeko kideak poztu egiten direla horretaz.

Gaineratzen du gai zaila dela, populismotik hurbil egon daitekeena kontuz eta tentuz ibili ezean. Zeharo ados dago familiei informazioa eman behar zaiela esatean, baina, hala ere, Eibarren ezarrita dagoen protokoloarekin ez litzateke malnutriziokasurik egon behar, eta horrelakorik balego, behar adina informazio ez izateagatik izango litzateke.

Errasti jaunak dio berek komenigarritzat ikusten dutela Gazteria Ordezkaritzak, Astixarekin batera, Oporrak Afariketan programa abuztura arte luzatzeko aukera aztertzea; eta garrantzizkoena inor ez estigmatizatzea dela; kasu bakoitzean laguntza ematea, diskrezioz jokatuta.

por Podemos Ahal Dugu; de lo que se alegran los integrantes de su Grupo.

Añade que es un tema peliagudo y que si no se anda con pies de plomo se puede rozar el populismo, estando totalmente de acuerdo en que se insista en dar información a las familias, aunque con el protocolo establecido en Eibar no debería de haber casos de malnutrición, y si existiesen, es que la información no ha fluido de forma suficiente.

Prosigue diciendo que creen conveniente que la Delegación de Juventud, junto con Astixa, estudie la posibilidad de ampliar hasta agosto el programa Oporrak Afariketan, y que lo principal es no estigmatizar; sino que hay que ayudar cada caso individualmente, con discreción.

Mendicute jaunak dio bera ere Errasti jaunak esandakoaren ildo beretik doala, eta uste du gauzarik onena lortu den adostasuna dela; eurak ere poztu egiten direla adostasun horretaz eta, honelako mozio bat aurkeztu baino lehen, uste dute gai horren inguruan hausnarketa bat egin behar dela, udalerriko errealitatea zein zen ezagutzeko; hasierako edo jatorrizko mozio hura onartuko balitz, gauza berri bat egiten ariko balira bezala izango litzatekeelako, eta, horrelako mozioak titular bila aurkezteko arriskua dago, ez arazo sozial bati konponbidea emateko.

El señor Mendicute afirma que en la misma línea de lo dicho por el señor Errasti, piensa que lo más adecuado es el consenso que se ha logrado y que también ellos se alegran de este consenso, y piensan que alrededor de una moción como ésta hay que hacer una reflexión para antes de presentarla conocer cuál es la realidad del municipio; pues si se acepta la moción originaria, sería como que se está haciendo esto como algo nuevo, y se corre el riesgo de que se presenten este tipo de mociones buscando un titular y no para dar una solución a un problema social.

Ondoren, Aguirre andreak hartu du hitza. Esaten du, joan zen urtean, uda aurretik, bere Taldeak proposamen berdina egin zuela zegoen premia oso urgentea zelakoan; baina orduan esan zioten aztertzen ari zirela zentro publikoetan nolako aplikazioa izan zezakeen, eta batik bat, umeen benetako beharrei erreparatuta; horregatik erabaki zuela bere proposamena baztertzea.
Gaineratzen du oso garrantzizkoa iruditzen zaiola umeen elikadura aztertzea, eta gai hori ezin dela utzi ahaztuta, umeek pisu larregi badute edo behar dituzten elikagaiak falta bazaizkie, erabakiak hartu beharko direlako.

Interviene a continuación la señora Aguirre quien afirma que su Grupo el año pasado, antes del verano, hizo la misma propuesta, pensando que la necesidad era muy urgente; pero que se le argumentó que estaba en estudio la aplicación que podía tener en los centros públicos y sobre todo desde la necesidad real de los niños, por lo que decidió la retirada de su propuesta.
Añade que le parece muy importante el estudio de la alimentación de los niños, y que es un tema que no se debe de dejar caer en el olvido porque si hay problema de exceso de peso en los niños o falta de los necesarios vitales, hay que adoptar las decisiones necesarias.

Ondoren, alkate jaunak hartu du hitza. Esaten du umeek malnutrizio arazo bat badute, normalena malnutrizio-arazo hori familiakoa izatea da, familietan gehien babesten direnak umeak izaten baitira.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que si existe un problema de malnutrición en niños lo normal es que sea un problema de malnutrición en las familias, ya que al que más se intenta proteger es al niño.

Hala da, dio alkateak, Irabazik mozio bat aurkeztu zuen, baina joan zen agintaldian Bilduk ere aurkeztu zuen mozioa, eta, haren haritik, protokolo bat ezarri zen eskoletan, eskolak baitira informazio-iturririk fidagarriena, umeekin hartu-eman gehiena dutelako.

Es verdad que Irabazi, prosigue, presentó una moción, pero también que Bildu la presentó en la legislatura pasada y que, al efecto, se estableció un protocolo con los centros educativos; pues es la fuente de información más fidedigna, ya que son los que más en contacto están con

los niños.

Gaineratzen du bakoitzak erabakitzen duela estrategia, gaiak zergatik dakartzan Osoko bilkurara, eta, mozio bat aurkezten bada, ez dagoela beste aukerarik: hura onartzea, arbuiatzea edo adostea.

Añade que cada uno decide la estrategia de el porqué traer los temas a Pleno, y señala que, si se presenta una moción, no queda otra que aceptarla, rechazarla o transaccionarla.

Aurreraxeago dio alkateak udal talde guztien artean akordio batera iristen ahalegindu beharko liratekeela, gai hau oso labaina delako, eta modu horretan, gizarteari, Udalaren konpromisoa zein den helarazi, konpromiso ezin argiago hau: Eibarren ez dadila horrelakorik gertatu; ez dadila malnutrizio-arazorik duen familiarik egon.

Afirma más adelante que es un tema lo suficientemente sensible como para intentar llegar a un acuerdo entre todos los grupos municipales, y así trasladar a la sociedad cuál es el compromiso del Ayuntamiento, compromiso que es clarísimo: que no pase esto en Eibar, y que no haya familias con problemas de malnutrición.

Gaineratzen du dagoeneko hartu direla behar adina neurri, esate baterako, elikagaien bankua, malnutrizioari herriaren paisaiaren parte izaten uzten ez diona. Hala ere, dio, baliteke horrelako kasu batzuk egotea; beraz, informazioa emateko ahalegin bat egin beharra, familiek arazo bat badute, arazo horri aurre egiteko bitartekoak badaudela jakin dezaten.

Añade que ya se han adoptado medidas suficientes como el banco de alimentos, que permite que la malnutrición no forme parte del paisaje de la ciudad; pero que es posible que pueda haber casos y por tanto que haya que hacer un esfuerzo de información para que las familias sepan que si tienen un problema, hay recursos para hacer frente al problema.

Horri aisialdiarena gehitu zaio, dio alkateak, abuztuan ere uztailean ematen den zerbitzu hori errepikatzeko aukerarik dagoen aztertu eta ikusi benetan zerbitzu hori emateko ala ez emateko eskaerarik dagoen.

A esto se ha añadido, prosigue, la posibilidad del tiempo libre, la posibilidad de que en agosto pueda repetirse el servicio que se da en julio, y ver si realmente hay demanda o no para hacer el servicio.

Amaieran esan du poztu egiten dela gai izan direlako Udalaren jarduketen inguruan oinarrizko planteamendu bat egiteko; eta Podemos-i eskertu egiten dio adosta-

Finaliza afirmando que se felicita de que hayan sido capaces de hacer un planteamiento base sobre las actuaciones del Ayuntamiento, y que agradece a Po-

suna bideratzeko erakutsi duen asmo ona.

demos la buena intención de posibilitar el consenso.

Irakurritako testua bozkatu eta aho batez onartu da.

Sometido a votación el texto leído, se aprueba por unanimidad.

5. ATALA

PUNTO 5º

Gure Esku Dago-ren mozioa erabakitzeko eskubideaz.

Moción de Gure Esku Dago sobre el derecho a decidir.

Idazkariak honako testu hau irakurri du:

La Secretaria da lectura al siguiente texto:

"Gure Esku Dago erabakitzeko eskubidearen aldeko herri dinamika oinarrizko hiru printzipioetan antolatuta dago: lehenengo herri bat gara; bigarrenik, erabakitzeko eskubidea dugu; eta hirugarrena, herritarron garaia da.

Euskal Herri mailako ekitaldiak antolatu izan ditu: 2014an Durango eta Iruñea arteko giza katea, 2015ean Hego Euskal Herriko lau hiriburuetan eta Baionan hautestontzi erraldoiak eraiki herriz herri bildutako oihal zatiak josiz.

2016an gertutasunera jauzi bat emanez, herrietan galdeketak antolatzeko lanari ekin genion. Burujabetzaren inguruan herritarren iritzia jasotzeko eta itaunketa burutzeko asmoz, "Eibarko Gure Esku Dago Erabakitze Eskubidearen Aldeko Kultur

"La dinámica popular a favor del derecho a decidir Gure Esku Dago está organizada sobre tres principios fundamentales: en primer lugar, somos un pueblo; en segundo lugar, tenemos derecho a decidir; y, en tercer lugar, es el momento de la ciudadanía.

Hemos organizado actos en todo el País Vasco: la cadena humana entre Durango y Pamplona en 2014; la construcción de unas urnas gigantes cosiendo trozos de tela recogidos pueblo a pueblo en las cuatro capitales del País Vasco sur y en Baiona en 2015.

En el 2016, dando un salto a la proximidad, iniciamos el trabajo de organizar cuestionarios en los pueblos. Con el objeto de recabar la opinión de la ciudadanía sobre la soberanía y de llevar a cabo la consulta, se creó "la Sociedad Cultural

Elkartea" sortu zen. Horrela bada, gaurkoan, Eibarko udal batzarkideei, herri galdeketa babes dezazuela eskatzera gatozkizue.

a Favor del Derecho a Decidir Gure Esku Dago de Eibar". Por ello, en el acto de hoy, os solicitamos a los miembros de la Corporación municipal de Eibar que respaldéis la consulta popular.

ZIOA

Datorren maiatzaren 7an Eibarko herritarrak herri-galdeketara deituak daude, "Euskal Errepublika bateko herritarra izan nahi duzu?" galderari erantzuteko. Gure hirian burutu behar den erabakitzeko eskubidearen gauzatze praktikoa babestu behar dugulakoan gaude; demokrazian, hau da, herritarrengan sinesten dugulako. Hori dela eta, honako mozio hau aurkezten dugu.

JUSTIFICACIÓN

Los/as vecinos/as de Eibar están convocados/as a una consulta popular que tendrá lugar el próximo 7 de mayo, para responder a la pregunta "¿Quieres ser ciudadano/a de una de República Vasca?". Consideramos que tenemos que respaldar la materialización práctica del derecho a decidir que se ha de celebrar en nuestra ciudad; porque creemos en la democracia, es decir, en la ciudadanía. Por esa razón, presentamos la siguiente moción.

AKORDIO PROPOSAMENA

1.- Eibarko Udal Batzarrak Euskal Herriko herritarrei etorkizunaz erabakitzeko, kontsultatuak izateko eta libre eta demokratikoki adierazten duten borondatea errespetatua izateko dagokien eskubidea eta gaitasuna babesten duela aldarrikatzen du.

2.- Eibarko Udal Batzarrak demokrazia herritarron erabakia dela, eta, beraz, erabakitzeko eskubidea gauzatzea demokraziaren agerpen gorena dela aldarrikatzen du.

PROPUESTA DE ACUERDO

1.- El Pleno Municipal de Eibar proclama que protege la capacidad y el derecho que les corresponde a los/as ciudadanos/as del País Vasco a decidir sobre el futuro, a ser consultados/as y a que se les respete la voluntad que expresen de manera libre y democrática.

2.- El Pleno Municipal de Eibar proclama que la democracia es una decisión de la propia ciudadanía y que, por tanto, la materialización del derecho a decidir es

Horrexegatik, erabakitzeko eskubidearen aldarrikapenetik gauzatzera igarotzeko ekimenak balorean jarri eta babestu behar direla adierazten du.

la suprema muestra de democracia. Por ello, declara que se tienen que poner en valor y proteger todos los actos que van desde la reivindicación del derecho a decidir hasta su materialización.

3.- Eibarko Udal Batzarrak maiatzaren 7an Eibarren herri-ekimenez burutuko den erabakitzeko eskubidearen gauzatze praktikoa babesten duela aldarrikatzen du; eta Eibarko herritarrei parte hartzeko deia luzatzen die."

3.- El Pleno Municipal de Eibar proclama que respalda la materialización práctica del derecho a decidir que se va a desarrollar el próximo 7 de mayo en Eibar por iniciativa popular; y extiende la convocatoria a participar en la misma a los/as ciudadanos/as de Eibar."

Mozioa irakurri ondoren, idazkari andreak dio udalerrian egin daitezkeen partehartze prozesu guztiak Euskadiko Tokiko Erakundeen Legearen esparru barruan egin behar direla, eta, kasu honetan, zehazki, haren 80. artikuluak ezarritakoa.

Concluida la lectura dice la Secretaria que todo proceso participativo que se dé a nivel municipal, ha de efectuarse en el marco de la Ley de Entidades Locales de Euskadi, y en concreto en este caso, con lo dispuesto en su artículo 80.

Errasti jauna izan da aurrena hitza hartzen. Esaten du ez duela larregi luzatu nahi, herritik atera den ekimen bat delako; beraz, herriari eman behar zaio hitza, eta Udalari ekimena babestea baino ez dagokio.

Interviene en primer lugar el señor Errasti quien afirma que no desea extenderse mucho, ya que se trata de una iniciativa que sale del pueblo y por tanto, es el pueblo el que debe de tener la palabra y al Ayuntamiento solo le corresponde apoyarla.

Gaineratzen du bere Taldearentzako ez dagoela erabakitzeko eskubidea baino gauza demokratikoagorik, eta eskubide hori bermatzeko dagoela datorren maiatzaren 7ko aukera hori.

Añade que para su Grupo no hay cosa más democrática que el derecho a decidir y que para garantizar este derecho está la oportunidad del próximo 7 de mayo.

Amaitzeko esan du Kirmen Uriberen hi-

Finaliza diciendo que termina con las pa-

tzekin amaituko duela, oso ondo zehazten duelako zer den Gure Esku Dago: “No amamos las paredes y los muros; solo queremos vivir juntos, no queremos dominar a nadie, solo queremos elegir el futuro, nada más.
Emprendamos el camino, pues está en nuestras manos; miles de personas, caminando de la mano. Gente féliz, en un pueblo libre.”

labras de Kirmen Uribe que define muy bien lo que es Gure Esku Dago: “hormak eta harresiak es ditugu maite, elkarrekin bizi nahi dugu soilik, ez dugu inor mendean hartu nahi, etorkizuna hautatu, ez besterik.
Har dezagun bidea gure esku dago eta, milaka lagun oinez eskutik oratuta, jende zoriontsua, herri libre batean.”

Ondoren, Mendicute jaunak hartu du hitza. Esaten du aurreko atalari buruzko hausnarketa bat eginez, eta oraingo honekin lotuta, bere ustez, hausnarketa bat egin behar da agintaldi batean gai berberaren inguruko mozioak hainbat aldiz ekar daitezkeen jorratzeko.
Gaineratzen du bere Taldeak duela urtebete aurkeztu zuela Euskal Herriak bere etorkizuna modu demokratikoan aukeratzeko eskubideari buruzko mozioa, baina, hainbat arrazoi tarteko, hura ez zela Osoko bilkura honetara heldu.
Mozio hark jasotzen zuen aurreneko esaldiak zioen Euskal Herria subjektu politikoa dela eta Eibarko herritarrak haren parte direla. Eta esaten du Gure Esku Dagok aurkeztu duen mozioaren lehenengo puntuak ere horixe bera esaten duela: “somos un pueblo".

Interviene a continuación el señor Mendicute, quien afirma que haciendo una reflexión sobre el punto anterior y uniéndolo a este, cree que debe de hacerse una reflexión sobre la posibilidad de traer reiterativas sobre un tema en el mismo mandato.
Añade que, hace un año, su Grupo también presentó una moción sobre el derecho del pueblo vasco a elegir su propio futuro democráticamente, pero que por diversas circunstancias, no llegó a este Pleno.
La primera frase de lo que decía aquella moción, prosigue, es que el pueblo vasco constituye un sujeto político del que los ciudadanos y ciudadanas eibarresas forman parte. Y, señala, la moción que ha presentado Gure Esku Dago en el primero de sus puntos, dice exactamente lo mismo: “herri bat gara”.

Hortxe dago, dio Mendicute jaunak, mu-

Ahí está, continúa, la clave principal de

gimendu honen eta Osoko bilkura honetara ekarri den eskakizunaren gako nagusia: herri batek bere etorkizuna modu libre eta demokratikoan aukeratzeko eskubidea izan badu, herri badelako.

Mendicute jaunak adierazten du 1931n Espainiako herriak errepublika eratzeko hautua egin bazuen, euskal Herriak 2017an eskubidea izango duela bere herritarrek nahi duten bezala eratzeko; eta mozio hau beste erakunde batzuk onartu duten testuaren antzekoa dela, esate baterako, Gipuzkoako Batzar Nagusietan, eta, noski, berek duda-izpirik gabe egiten dutela mozio honen alde.

Erabakitzeko eskubidea, dio Mendicute jaunak, denak bilduko dituen gaia, gai transbertsala izan behar da; beste kontu bat da nolakotsuak izango diren hartzen den erabakiaren ondorioak, baina erabaki ahal izateko eskubidearen oinarria ezartzea, hori bozkatu ere ez litzateke egin behar, oinarri hori lehendik datorrelako: subjektu politiko bat dagoela aitortzen den unetik bertatik, herri bat badela aitortzen denetik, herri horri bere etorkizuna erabakitzeko eskubidea duela aitortu beharko litzaioke, besterik gabe.

Mendicute jaunak dio gaia hain denez transbertsala, bere Taldeak duen ideologiara lerratzeko inongo itxurarik ez duen pertsona baten hitzak ekarri nahi dituela: “Lurraldetutako gutxiengo batek independentzia nahi badu, printzipio demokratiko-

lo que mueve tanto a este movimiento como a la reivindicación de lo que se trae a este Pleno; ya que el derecho a decidir libre y democráticamente el futuro de un pueblo existe, por la simple existencia del pueblo.

Añade que si en 1931 el pueblo español pudo decidir constituirse en república, el pueblo vasco en 2017 podrá tener derecho a constituirse como sus ciudadanos lo consideren, y que esta moción es similar a un texto que ha sido aprobado en otras instituciones, como en las Juntas Generales de Gipuzkoa, y que lógicamente lo suscriben sin tapujos.

Dice también que el derecho a decidir tiene que ser una cuestión transversal que una a todos, y que otra cuestión será las consecuencias de lo que se decida, pero que establecer la base de que hay derecho a poder decidir ni siquiera se debería de someter a votación, pues debería de ser preexistente; en el momento que se reconoce que existe un sujeto político, que existe un pueblo, se debería de reconocer automáticamente que tiene derecho a decidir su futuro.

Es una cuestión tan transversal, continúa en su intervención, que trae unas palabras de alguien que desde luego no es nada sospechoso de ser afín a la ideología que puede representar su Grupo, y que dice “si una minoría territorializada

ak ezin dizkio borondare horri ezaba daitezkeen oztopo formalak jarri. Konstituzioak oztopatzen badu, erreformatu egin beharko dugu, baina horra iritsi baino lehen, jakin behar dugu balizko borondate hori badagoen eta zenbaterainoko sendotasuna duen. Horretarako bide bakarra erreferenduma da." Eta kasu honetan planteatzen ari dena ez da erreferenduma, galdeketa hutsa baizik; eta, hala ere, Gobernu ordezkariren baten errekerimendu-hotsa dabil harrotzen.

desea la independencia, el principio democrático impide oponer a esa voluntad obstáculos formales que puedan ser eliminados. Si la Constitución lo impide, habrá que reformarla, pero antes de llegar a ese extremo, hay que averiguar la existencia y la solidez de esa supuesta voluntad y para ello no hay otro camino que el referéndum."; y en este caso no se está planteando un referéndum, se está planteando un consulta que ni siquiera llega a esos términos, y aun así está sobrevolando el requerimiento de algún Delegado del Gobierno.

Amaitzeko baieztatu du testu hau betebetean onartzen dutela eta aho batez onartua izatea espero duela.

Finaliza afirmando que suscriben plenamente este texto y que espera que sea aprobado por unanimidad.

Aguirre andreak dio berak bat egiten duela esandako guztiarekin baina gobernuaren ordezkariaren oharra aipatu nahi duela, ordezkariaren zereginak jasotzen dituen lege biak irakurri dituelako, eta ez duela ezer ikusi udal lurzoruaren erabilera publikoa ez ematearen inguruan, gobernuaren ordezkariaren izaera orokorreko jardunak baino ez dituela aipatzen; beraz, neurri batean behintzat, gobernuaren ordezkariak berak aipatu duen Lege horretan aipatzen ez den eskumen bat hartzen du berea balitz bezala.

La señora Aguirre manifiesta que se suma a todo lo que se ha dicho pero que desea hacer mención a la nota del Delegado del Gobierno porque se ha tomado el trabajo de mirar las dos leyes que recogen las funciones del Delegado de Gobierno, y que en ningún caso ha visto nada que haga mención de no hacer uso público de suelo municipal, y tan sólo habla de actuaciones de carácter general del Delegado de Gobierno, por lo que de alguna forma, el Delegado se arroga una potestad que no aparece en la Ley que él mismo menciona.

Ondoren alkate jaunak hartu du hitza, eta esaten du mozioa ez dela aho batez onartuko, bere Taldeak ez duelako horren aldeko botoa emango.

Bere Taldeak, dio alkateak, ez zuen mozioa Osoko bilkurara ekarri nahi, beraien iritziz, joan zen urtean EAJ-PNVak planteatzen zuen mozioak bezala —hura ez zen Eibarrera bakarrik mugatzen, jarrera orokorragoa zen— oraingo honek ere Eibartik gorako eragina du, baina, hala ere, Eibar berariaz aipatzen denez, Osoko bilkurara ekartzekotan geratu ziren.

Esaten du nahi diren eztabaida juridiko, politiko edo instituzional guztiak egin daitezkeela, baina hitz bati aurretik "eskubide" hitza jartzeak ez duela esan nahi ordenamendu juridikoaren parte denik.

Erabakitzeko eskubidea, dio alkateak, jasota dago ordenamendu juridikoan, baina ordenamendu juridiko horrek uzten dituen kontzeptuetarako eta gaietarako, ez beste ezertarako; eta hau egiten utziko balu, ez lirateke ariko honetaz hitz egiten; beraz, ordenamendu juridikotik aparteko prozesu bat ari da hezurmamitzen.

Segitu du esaten, azken finean, gizarte honetako parte garrantzitsu batek beren jarreren alde egiteko mahaigaineratu duen lanabes bat baino ez dela; eta ehuneko hamabosteko edo hogeiko parte-hartze batekin, hortik, ehuneko laurogeita hamar eta pikuk independentziaren aldeko botoa ematen dutela, baina berak ez duela gi-

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que la moción no va a salir por unanimidad, ya que su Grupo no va a votar a favor de la misma.

La postura de su Grupo, prosigue, era de no traerla a Pleno, ya que entendían que al igual que lo que planteaba la del PNV hace un año, que no se circunscribía exclusivamente a Eibar -sino que era una posición más general-, ésta también tiene una repercusión superior a Eibar, aunque al hacerse mención expresa a Eibar, se quedó en que viniera a Pleno.

Dice más adelante que se pueden establecer discusiones jurídicas, políticas e institucionales, pero que porque a una palabra se le ponga por delante la palabra derecho, no significa que forme parte del ordenamiento jurídico.

El derecho a decidir, prosigue, sí existe en el ordenamiento jurídico, pero para los conceptos y las cuestiones que el ordenamiento jurídico permite; y señala que, si lo permitiera, no se estaría abordando esto, con lo cual se está articulando un proceso al margen del ordenamiento jurídico.

Prosigue afirmando que no deja de ser un instrumento que una parte importante de esta sociedad está planteando para defender sus posiciones, y que así resulta que de una participación del quince, o del veinte por ciento, el noventa y tanto por ciento vota a favor de la independencia, pero que no cree que ésta sea la

zartearen errealitatea hori denik.

Uler dezake, dio alkateak, bide hau erabili nahi izateajarrera politiko batzuk mahaigaineratzeko, baina, Mendicute jaunak esan duen bezala, zerbait badago egiteko, hori egin dadin, joko-arauen barruan izan beharko da, joko-arau horretatik kanpo geratzen den guztiari bere taldeak ezetza emango diolako; beraien iritziz, erabakitzeko eskubidea, prozesu hauen bitartez egiten ari den bezala, ez da existitzen, eta, hortaz, ordenamendu juridikoak ez du horrelakorik islatzen; beraz, ordenamenduak txerta dezan, lan egin beharko dena.

Alkateak dio duen ardura alde instituzionala dela, eta Gure Esku Dago-k ere baduela ardura hori, bera bilduta egon baita haiekin; eta honen guztiaren zutabeetako bat Udalak ezertan parte ez hartzea dela, gobernuaren ordezkariaren aldetik egon litezkeen esku-sartzeak edo kontrako txostenak ez jasotzeko. Eta horregatik harritu dela mozioa datorren moduan ikustean, Udalari hainbat jarrera hartzea eskatzen diolako, eta udal Osoko bilkurak erabaki arren, gero ezingo dira bete.

Gaineratu du Gure Esku Dago-rekin izan dituen bilerak benetan adeitsuak eta positiboak izan direla, baina Udala hortik kanpo geratzen dela jakinda eta horretaz jabetuta.

Ematen du mozioa aurrera aterako dela, dio alkateak, eta ikusiko da aurrera atera-

realidad social.

Puede entender, continúa, que se quiera utilizar este camino para plantear una serie de posicionamientos políticos, pero que si tal como ha dicho el señor Mendicute, si hay algo que hacer, que se haga, tendrá que ser dentro de las reglas del juego, y todo lo que vaya al margen, su Grupo no lo va a defender; en primer lugar porque entienden que el derecho a decidir cómo se está planteando a través de estos procesos no existe, y por tanto, el ordenamiento jurídico no lo contempla, y lo que habrá que hacer es trabajar para que lo incorpore.

Prosigue diciendo que le preocupa la parte institucional y que también le preocupa a Gure Esku Dago, con quien ha estado reunido, y que uno de los pilares de todo esto es que el Ayuntamiento no participe en nada, para evitar posibles injerencias del Delegado de Gobierno, o informes negativos, y que es por lo que le ha sorprendido la moción como tal, ya que está exigiendo al Ayuntamiento una serie de posiciones, que aunque las decida el Pleno, luego, no se van a poder hacer.

Añade que las reuniones que ha mantenido con Gure Esku Dago han sido tremendamente cordiales y positivas, pero con conciencia propia de que el Ayuntamiento quedaba la margen.

Parece que va a salir adelante la moción, prosigue, y se verá las consecuencias

tze horrek nolako ondorioak dakartzan, baina alkate den aldetik, hauxe aurreratu behar duela: ez duela hartuko udal jardunaren legalitatea zalantzan jarriko duen inongo erabakirik; eta hala dela, Gobernu Ordezkaritzaren idatzi bat jaso dela. Eta, hala egin behar bada, udal teknikariek egindako txostenak eskura daitezke, gobernuaren ordezkariaren jakinarazpenak duen edukiaz Irabazik dioena nola ulertu behar den interpretatu edo esango duten txostenak.

que tenga el hecho de que salga; pero como Alcalde tiene que anticipar que no va a tomar ninguna decisión que cuestione la legalidad de la actuación municipal, habiendo en efecto un escrito de la Delegación de Gobierno. Y en su caso, se podrá disponer de los informes de los técnicos municipales que interpretarán o dirán cómo hay que interpretar lo que dice Irabazi sobre el contenido de la notificación del Delegado de Gobierno.

Amaitzeko esan du politikaren bidetik badagoela denek egin beharreko bide bat erabakitzeko eskubidea ordenamendu juridikoaren barruko eskubide bat izan dadin; eta ikuspegi juridikotik aitortua ez dagoen bitartean, ibilbide semantiko bat izango du; eta ikuspegi instituzionaletik, alkateak dio berak ez duela beteko Gobernu Ordezkaritzaren jarraibideen nahiz egin daitezkeen txosten teknikoen kontrako jardun oro.

Finaliza afirmando que políticamente hay un camino por recorrer por parte de todos para conseguir que el derecho a decidir sea un derecho dentro del ordenamiento jurídico, que mientras no esté reconocido desde el punto de vista jurídico, tendrá un recorrido semántico y que desde el punto de vista institucional, cualquier actuación que contravenga tanto las instrucciones de la Delegación de Gobierno, como los posibles informes técnicos, no los materializará.

Aguirre andreak hitza hartu du eta esan du bera prest dagoela aipatu dituen lege horiek fotokopiatu eta talde politikoei emateko.

La señora Aguirre pide la palabra para decir que se ofrece a fotocopiar las leyes que ha mencionado para dárselas a los grupos políticos.

Berriro hartu du hitza Mendicute jaunak; esaten harrituta geratu dela alkateak hiru maila horiek bereiztu egiten dituela ikuste-

Interviene de nuevo el señor Mendicute quien afirma que le sorprende la distinción que se hace de los tres planos por

an, eta harritu egiten dela baita alkatea ez delako sartzen gaiaren muinean, hau da, esparru politikoan.

Esparru juridikoan, dio, eztabaidatu daiteke herriek duten eskubide hori nola bete daitekeen erabakitzeko orduan; eta aurretik aipatu dituen hitz horiek Francisco Rubio Llorenterenak zirela, Estatuko Kontseiluaren kidea 2004tik 2012ra bitartean, eta, hain zuzen ere, behar diren erramintak juridikoki egokitzeko premiaz egiten duela hark berba, eskubide politikoez baliatu ahal izateko. Atentzioa ematen du, dio Mendicute jaunak, esparru politikoaz hitz egitean behatz puntetan ibiltzea, testu hau onartzeak esparru instituzionalari ekar liezazkiokeen ondorio juridikoak zalantzan jarrita, baina herriari hitza ematea ondo iruditzen zaion ala txarto iruditzen zaion esateke.

Amaitzeko esan du berak gonbita luzatzen diola alkateari eta kontrako botoa edo abstenituko diren guztiei, maiatzaren zazpian mahaietara hurreratu eta euskal errepublika egitearen kontrako botoa eman dezaten, baina ez duela ulertzen ez babestea galdeketa hori egin ahal izatea.

parte del Alcalde, y que no entre en el fondo del asunto en el ámbito político.

En el ámbito jurídico, prosigue, puede haber discusiones de cómo se materializa el derecho que asiste a los pueblos, y la cita efectuada antes era de Francisco Rubio Llorente, miembro del Consejo de Estado entre 2004 y 2012, y habla precisamente de tener que habilitar jurídicamente las herramientas necesarias para que los derechos políticos puedan ejercitarse, y llama la atención que se pase de puntillas sobre el ámbito político, poniendo en duda las consecuencias jurídicas que puede tener en el ámbito institucional el hecho de aprobar este texto, pero sin decir si parece bien o parece mal que el pueblo pueda pronunciarse.

Finaliza diciendo que invitaría al Alcalde y a todos los que vayan a votar en contra o se vayan a abstener, a que asistan el siete de mayo y voten en contra de que pueda hacerse una república vasca; pero que lo que no entiende es que no se apoye el que se pueda hacer la consulta.

Errasti jaunak hartu hitza berriro, eta esaten berak uler dezakeela PSEren jarrera, beraiek ez konpartitu arren, baina gauza bat ez zaiela gustatu: parte-hartzeari buruzko datuak mespretxatzea, ez dutelako uste hori denik bidea. Katalunian ere ho-

Interviene de nuevo el señor Errasti para decir que pueden llegar a entender la postura del PSE, aunque no la compartan, pero que lo que no les ha gustado es que se menosprecien los datos de participación, porque no creen que ese

rrela hasi ziren, parte-hartze pintzelkada txiki batzuekin, eta azkenean ikusi nolako olatu bilakatu den.

sea el camino, y en Cataluña empezaron así, con unas pequeñas pinceladas de participación y se ve la ola en que se ha convertido.

Alkate jaunak baieztatzen du berak esan nahi zuena hauxe zela: galdeketan parte hartu dutenen artean gehien-gehienek independentziaren alde egin dutela, eta horixe da lanabes honek gizartean duen islaren sintoma bat; eta berak horixe zela aipatu nahi zuen gauza bakarra: gizartearen zati batek hartu duen lanabes bat dela.

Afirma el señor Alcalde que lo que ha querido decir es que inmensamente mayoritaria la participación ha sido a favor de la independencia, y que eso ha sido un síntoma del reflejo social que tiene este instrumento, sólo quería entrar en que es una herramienta de la que se ha dotado una parte de la sociedad.

Mendicute jaunak hartu du hitza hauxe esateko: gizartearen beste zati horrek ez duela lanabes horren premiarik, kokatua duelako bere identitate politikoa parte den estatuan. Beraz, honako hau, gizarteak, demokratikoki, bere etorkizuna erabaki behar duela aditzera emateko modu bat da; erabakitzeko aukera denei ematea izango litzateke logikoa, eta, gero, gehiengo sozial batek horren alde egiteko arriskua hain txikia bada, maiatzaren zazpian kontrako botoa eman eta bozketa gehiengoz irabazi.

Interviene el señor Mendicute para decir que la otra parte de la sociedad no necesita dotarse de esa herramienta, ya que tiene acomodada su identidad política en el estado del que forma parte, y por tanto, es una forma de entender que la sociedad, democráticamente, tiene que decidir su futuro; siendo lo lógico que se dotase a todos de la posibilidad de decidir y después, si tan pequeño es el riesgo de que una mayoría social pueda apoyarlo, se vote en contra el día siete de mayo y ganen la votación por mayoría.

Amaitzeko, Mendicute jaunak herritarrei dei egiten die nahi dutena bozka dezaten, baina, hori bai, parte har dezatela.

Finaliza invitando a la ciudadanía a que vote lo que considere, pero a participar.

Mozioa botazioan jarrita, honako emaitza honekin onartu da:

Baiezko botoak: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren -Lamarain Cobok delegatutako botoa ere eman du-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Abstentzioak:

Sometida a votación la moción, se aprueba con el siguiente resultado:

Votos afirmativos: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - quien ejerce voto delegado por Lamarain Cobo-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU), Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV), Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos negativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Abstenciones: ninguna.

<u>6. ATALA. Irabaziren mozioa, kontratazio publiko arduratsuari buruzkoa</u>.

Idazkari andreak honako testua irakurri du:

“Irabazi Ganemos Eibarrek, María Jesús Aguirre Unceta bozeramailearen bitartez, azpiko mozioa proposatu du, hurrengo Osoko bilkuran eztabaidatzeko:

<u>PUNTO 6º. Moción de Irabazi sobre la contratación pública responsable.</u>

La Secretaria da lectura al siguiente texto:

“El Grupo municipal Irabazi Ganemos Eibar, a través de su portavoz María Jesús Aguirre Unceta, presenta esta moción al Equipo de Gobierno para ser debatida en Pleno:

ARRAZOIAK

Administrazioen berezko lanabesa da kontratazio publikoak egitea, obrak egiteko, ondasunak eskuratzeko eta zerbitzuak jasotzeko; eta horrek eragin nabarmena izan dezake gure hirien ekonomian, gizartean eta ingurumenean. Eragin hori bi motatakoa da: batetik, kuantitatiboa, Espainiako BPGren % 15 inguru sortzen baitu; bestetik, kualitatiboa, gure herriaren eta hirien obra, zerbitzu eta horniketa handienak egiten dira-eta bide honen bidez. Eragin horrek onura handiak ekar liezazkieke gizarteari eta ingurumenari, produkzio- eta kontsumo-eredu aproposak sustatuko balitu, bai interes orokorrerako, bai herritarren ongizaterako. Baina, orain arte, kontratazio publikoak irizpideen zati bat baino ez du aintzat hartu: ekonomia, alegia, kostua; eta hainbat eta hainbat alderdi bazterrean utzi ditu.

Beren eskumenak baliatzeko behar dituzten tresnak aztertuz gero, kasu askotan ohartuko gara botere publikoek lanbaldintza ez duinetan oinarritutako enpresa-eredua bultzatzen dutela: barne-demokrazia gabezia, generoagatik edo aniztasunagatik bazterkeria, pilaketa bidegabea, kutsadura, ekosistemen suntsiketa, baliabide ez berriztagarrien erabilera, gizarte-bazterkeria eta ustelkeria politikoa zein ekonomikoa. Zorionez baina, goraka-

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

La contratación pública de obras, bienes y servicios es una herramienta propia de las Administraciones Públicas y que puede generar un muy importante impacto económico, democrático, social y medio ambiental en nuestras ciudades. Su influencia se refleja tanto desde un punto de vista cuantitativo (supone alrededor del 15% del PIB español) como cualitativo a través de esta fórmula se realizan las principales obras servicios y suministros, del país y de nuestras ciudades). Ese impacto podría ser social y ambientalmente muy positivo si promoviera un modelo productivo y de consumo que sirva al interés general, al bien común o al bienestar de la ciudadanía. En cambio, hasta la fecha, se ha ceñido a solo una parte de los criterios: el económico, (o sea, el coste), dejando muchos otros aspectos sin consideración.

De este modo si comparamos los recursos necesarios para ejercer sus competencias, los poderes públicos están impulsando, en muchos casos, un modelo de empresa asentado en condiciones laborales indignas, falta de democracia interna, desigualdad y discriminación por género o diversidad, acumulación insolidaria, contaminación, destrucción de ecosistemas, uso de recursos no renovables, exclusión social, y corrupción po-

ko bidea hartu dute azkenaldian egite orokorrari aurre egiten dioten kasuak, hainbat eragileren presioa dela medio: ekonomia sozial eta solidarioa, gizarte-mugimenduak eta sindikatuak eta aldaketaren aldeko indar politikoak. Gero eta ohikoagoak dira klausula sozialak, ingurumenekoak eta generoari buruzkoak aintzat hartzen dituzte kontratazio pleguak. Hala ere, saiakerak ez dira beti egia bihurtzen, aurka dituztelako hamarkadatako inertzia, prozedura konplexuak, ondo ezagutzeko zailtasuna eta marko juridiko apropos baten falta.

lítica o económica. Afortunadamente, en los últimos tiempos, el número de excepciones a esa regla general está aumentando poco a poco. Gracias a la presión ejercida desde la economía social y solidaria, los movimientos sociales y sindicales, así como las fuerzas políticas del cambio, para que estén presentes en los pliegos de contratación públicas las clausulas sociales, ambientales y de género. Aun así, la inercia de décadas, el desconocimiento de procedimientos complejos y un marco jurídico todavía insuficiente impiden que muchos de estos intentos se materialicen.

Horregatik, aldaketaren aldeko indarrek, IRABAZI tartean, baieztatzen dugu kontratazio publikoa lanabes gisa erabili behar dela gizartea eta ekonomia aldatzeko; eta hori erabat bateragarria da administrazioaren efizientziarekin eta segurtasun juridikoarekin. Beraz, saihestu ezineko erantzukizuna dute administrazioek: kontratazio publikoa gizartearen norabidea aldatzeko erabili behar dute, eta Europako Batasunaren araudiaren arabera aplikatu.

Por ello desde las diferentes fuerzas del cambio, entre ellas IRABAZI, afirmamos que la contratación pública debe ser un instrumento de transformación socio-económica, lo que es totalmente compatible con la eficiencia administrativa y la seguridad jurídica, por lo que las Administraciones tienen la responsabilidad ineludible de cambiar el rumbo y usar esa herramienta en el ejercicio de sus competencias, conforme a la normativa de la Unión Europea.

Irabazik kezka berezia du Espainiako erakundeek —udalek ere— behin eta berriz betetzen ez dituzten Europako zuzentarauekin: 2014/24/UE Zuzentaraua, 2014ko urtarrilaren 15ean onartutakoa, kontratazio publikoari buruzkoa. Arau horrek Estatuko lege izan behar zuen orain dela hiru urte.

A Irabazi le preocupa especialmente constatar una y otra vez el incumplimiento por parte de las instituciones españolas –e incluso en los niveles municipales- de su obligación de transponer y cumplir directivas europeas, en este caso la Directiva 2014/24/UE aprobada el 15 de

Guk dakigunez, presako bidetik ari dira tramitatzen proiektua, eta ez ditu derrigorrez bete beharreko alderdiak jasotzen, gomendagarri diren gehienak kanpo uzten baititu. Zuzentarauak derrigortu egiten ditu enpresa kontratistak ingurumenari, gizarteari eta lanari buruzko baldintzak betetzera, baina Gobernua hori ekiditen saiatzen da. Gainera, alboratu egiten da administrazioek kontratu handiak loteka ateratzeko duten betebeharra. Zatikatze horrek ETEk (enpresa txiki eta ertainak) kontratazio publikoetan parte hartzea erraztuko luke, enpresa sozialei kontratuak gordetzea bideratu edo bidezko merkataritzari lehentasuna emango lioke; azken batean, klausula sozialak produktua edo zerbitzua lortzeko bide osoan aplikatzea.

enero de 2014, relativa a la Contratación Pública que debía haberse convertido en legislación estatal hace ya tres años. Hasta donde sabemos, el proyecto tramitado por vía de urgencia no contempla todos los extremos de obligado cumplimiento, sino que deja fuera la mayoría de los recomendables. El gobierno intenta evitar que sea obligatorio para cualquier administración española exigir a las empresas contratistas el cumplimiento de las leyes europeas en materia medioambiental, social y laboral, como establece esa Directiva. Además se soslaya que las Administraciones no tengan que dividir o lotear los grandes contratos para facilitar la participación en PYMES, reservar contratos a empresas sociales, favorecer el comercio justo o aplicar esas cláusulas sociales, ambientales y de género a cualquier aspecto y a cualquier fase del ciclo de la vía del producto o servicio contratado.

Horregatik guztiagatik, gure taldeak azpiko mozioa onartzeko eskatzen dio Udalbatzari:

Es por todo ello que nuestro grupo solicita la aprobación en el Pleno de la siguiente:

MOZIOA

- Kontratatutako eta azpikontratatutako enpresek honako arauak betetzen dituztela bermatzea: Europako Batasunak ingurumen-, gizarte- eta lan-gaietan duen zuzenbidea, hitzarmen kolektiboak

MOCIÓN

- Garantizar que las empresas contratadas y subcontratadas cumplan el Derecho medioambiental, social y laboral de la Unión Europea, el Derecho nacional, los convenios colectivos o el Derecho Internacional en esas mate-

edota nazioarteko zuzenbidea.

- Berariaz eta argi adierazi eskaintza ekonomiko abantailatsuena kalitatea-prezioa harremanaren arabera balioetsiko dela, eta horretarako irizpide hauek hartuko direla kontuan: kontratuaren helburuaren inguruko alderdi ekonomikoak eta kalitatea, eta alderdi sozialak eta ingurumenekoak.

- Lehentasuna eman kontratu publikoak loteetan banatzeari, ETE-ek eta mikroETEek errazago parte har dezaten.

- Kontratazio-pleguetan adierazle objektiboak ezarri, kontratu publikoak abian direnean, klausula sozialak betetzen ari direla ebaluatu ahal izateko.

- Kontratu publikoen zati bat gorde eta ekonomia sozial eta solidarioa lehenesten duten enpresei eskaini, bereziki, gizarteratzea sustatzen dutenei, bazterkeria soziala saihesten baitute.

- Lehentasuna eman erosketa eta kontratu publiko *berde*ei. Erabiliko diren materialek ingurumenean dute eraginak ez ezik (ahal bezain ur eta energia gutxien erabili, hondakinak sailkatu), horiek pro-

rias.

- Establecer explícitamente que la oferta económicamente más ventajosa se evaluará sobra la base de la mejor relación calidad-precio, determinándose para ello los criterios económicos y de calidad relacionados con el objeto de contrato, incluyendo, además, aspectos sociales y medioambientales.

- Priorizar la división en lotes de los contratos públicos para facilitar la participación de PYMES y micro-PYMES.

- Incluir en los pliegos de contratación indicadores objetivables para la evaluación del cumplimiento de las cláusulas sociales y ambientales en la fase de ejecución de los contratos públicos.

- Reservar un determinado porcentaje de los contratos públicos a las empresas de economía social y solidaria, en especial de inserción social, para evitar el riesgo de exclusión.

- Optar decididamente por una compra y contratación pública verde, de forma que no solo se tenga en cuenta el comportamiento ambiental de los materiales y productos usados, (mínimo

duzitzeko metodoak (EMAS, ISO-14000) eta prozedurak ere baloratu.

uso de agua y energía, recogida selectiva de residuos, también los métodos y procedimientos en la ejecución o fabricación (EMAS, ISO-14000).

- Bidezko merkataritza lehenetsi, Europako araudiak ezartzen diren bermeekin.

- Hizpide ditugun klausulak kontratatuko diren produktu edo zerbitzuen ibilbide osoan aplikatu, eta dagokion batzorde edo teknikari-taldeak hala egiten dela ebalua dezala.

- Kontratazio-pleguetan zehaztu aplikatuko diren zehapenak: arinak, ertainak, larriak, eta kontratua etetea. Zehapenak aplikatzea bi lege hauek ezartzen duten legezko markoak ahalbidetzen du: Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategineko 223. eta 308. artikuluak eta Lan-arloko Arau-hauste eta Zehapenei buruzko Legearen testu bategina, abuztuaren 4ko 5/2000 Errege Dekretu Legegileak onartua. Beraz, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 223. artikuluko f) eta h) atalekin bat, zehapenak ezarriko dira eta, lege horrek arautzen dituen neurriez gain, tokiko edo eskualdeko irizpideek ezartzen di-

- Favorecer el comercio justo, con las garantías que establece la normativa europea.

- Aplicar estas cláusulas a cualquier elemento y a cualquier fase del ciclo de vida del producto o servicio contratado, de forma que pueda ser revisado y evaluado por la comisión y el equipo técnico correspondiente.

- Fijar en los pliegos de contratación las causas de penalizaciones leves, medias y graves, así como las de rescisión de contrato. Esto entra en el marco legal establecido en los artículos 223 y 308 del Texto Refundido de la Ley de Contratos de Sector Público y de las infracciones tipificadas en el Texto Refundido de la Ley sobre Infracciones y Sanciones en el Orden Social, aprobado por el Real Decreto Legislativo 5/2000 de 4 de agosto, por lo que se establecerá en los contratos de acuerdo a sus apartados f) y h del art. 223 y se añadirán medidas adicionales a las reguladas en la citada ley de acuerdo con

tuztenak ere gehituko dira."

los criterios locales o comarcales."

Irakurketa amaitu eta gogora ekarri die idazkariak Kontratazio teknikariak txosten bat egin zuela apirilaren 19an, eta mozioarekin batera aurkeztutako agirien artean zegoela.

Concluida la lectura, recuerda la Secretaria que el Técnico de Contratación ha emitido un informe de fecha 19 de abril, el cual constaba entre la documentación junto con la moción.

Aguirre andreak hartu du hitza lehenengo. Errasti jaunari eskerrak eman dizkio mozioari buruzko txostena egiteagatik eta horren azkar aurkezteagatik. Gai hau berriz ere mahai gainera ateratzeari buruzko komentarioak entzun dituela esan du, eta erantzun beste biderik ez duela, klausula sozialak ez direlako aplikatzen.
Erantsi du Irabazi taldea mozioen jarraipena egiten saiatu zela, ebaluazio-tresna sortzeko. Lan egiteko prozedura berriak aztertzeko aukera ekarriko luke ebaluazioak, jarraipena eraginkorragoa izan dadin; baina ordukoak hitz handiak baino ez ziren izan.

Intervine en primer lugar la señora Aguirre quien comienza agradeciendo al señor Errasti la elaboración de su informe sobre la moción presentada y lo rápido que lo presentó. Añade que se dice que se vuelve a traer otra vez este tema; pero que la verdad es que no se ponen en práctica estas cláusulas sociales.
Prosigue diciendo que su Grupo intentó efectuar un seguimiento de las mociones, para crear un instrumento de evaluación, para, a través de esa evaluación poder decidir sobre nuevos procedimientos de trabajo para conseguir ser más eficaces en el seguimiento; pero que se quedó el tema en grandes palabras.

Haren ondoren, Irabazik beste saiakera bat egin zuela, klausula sozialak orokorrean aplikatzeko. Izan ere, klausulek Udal osoari eta kontratazio duin bat edukitzeko aukera nahi zuten eibartar guztiei eragiten diete; klausulek ahulenei, kontrataziorako sarbide sendoak ez dituztenei, laguntzea bilatzen zuten helburu.

Posteriormente, continúa, su Grupo también hizo otro intento de cláusulas sociales en general, apuntando a que realmente tocaba de cerca a todo el Ayuntamiento y a los eibarreses e eibarresas que querían tener una forma de entrada a la contratación que fuera digna y que fuera favoreciendo a los más débiles, a

los que no posean el apoyo de los que tienen mayores accesos.

Erantsi du Podemosek egin zuela proposamena, batzorde bakoitzean zegozkien klausulak aplikatzen joateko lanak hartzekoa; baina hura ez zuten onartu. Eta gero, Irabazik berriz eskatu zuen teknikarien batzordea sortzea, pleguak idazteaz gain, hanka-sartzeen jarraipena egin eta kontratazioa hobetzen joateko.

Y luego, continúa, su Grupo de nuevo volvió a pedir un comité de técnicos que no sólo se ocupasen de redactar los pliegos; sino que pudiera hacer un seguimiento para corregir los errores cometidos, e ir mejorando la contratación.

Aguirre andreak dio bere taldeak aurrera atera nahi izan duela gai hau, kosta ala kosta; eta behin eta berriz tematzen dela oraindik ere ez dutelako gaia batzordeetan jorratu nahi. Erantsi du bere taldeak ez duela arrazoirik emateko aukerarik, ez dizkiotelako pleguak uzten.

Finaliza afirmando que su Grupo ha querido por todos los medios que este tema se lleve a cabo, y que si insisten es porque no se ha llevado a cabo todavía y porque en las comisiones no se afronta esta realidad, y añadiendo que además su Grupo no tiene capacidad para aportar sus razonamientos, ya que no se les facilita los pliegos.

Ibañez andreak hitz egin du ondoren. Osoko bilkurara behin eta berriz ekartzen den gaia dela errepikatu du.

Interviene a continuación la señora Ibañez quien afirma que ya advertía el mes pasado de que es un tema que se trae una y otra vez al Pleno.

Bere taldea abstenituko dela dio eta Kontratazio teknikariaren txostenarekin erabat ados daudela; lau lerrotan bere taldeak ulertzen duena azaltzen du. Gaineratu du garrantzitsuena dela plegu bakoitzean ondo definitutako klausulak sartzea, kontrolbideak eta zigorrak ongi definitzea, eta ez kontratuarekin lotuta ez dauden irizpide sozialen katalogoa sartzea; benetan eraginkor izango direnak bakarrik sartzea.

Añade que su Grupo se va a abstener y que comparte totalmente el informe del Técnico de Contratación porque en cuatro líneas define perfectamente lo que su Grupo entiende. Y que así, recoge que lo más importante es establecer en cada uno de los pliegos unas cláusulas bien definidas, establecer unos mecanismos de control correctamente especificados y las sanciones, y no de incluir un catálogo

de criterios sociales que no tengan una relación directa con el contrato; sino incluir aquellas que realmente vayan a ser efectivas.

Jarraian esan du martxoko Osoko bilkuran EAJk esan zuela kontu hau ez zela kopuru-arazo bat, kalitatearena baizik: klausula guztiek ez dutela kontratu guztietarako balio, eta serio planteatu behar direla, bete ahal izateko. Bestela, alferrikako lana izango dela dena.

En el Pleno de marzo, prosigue, su Grupo decía que no es un tema de cantidad, sino de calidad; y que no todas las cláusulas valen para todos los contratos, y que hay que ser serios a la hora de plantear estas cláusulas para que sean cumplidas, pues de lo contrario son un brindis al sol.

Gaia aztertuta, akaso klausula sozialen gida bat egin lezake Udalak, beste administrazio batzuek egiten duten bezala.

Continúa afirmando que analizando el tema, piensa que tal vez el Ayuntamiento pudiera elaborar una especie de guía de cláusulas sociales en las actividades contractuales, al igual que se hace en otras administraciones.

Otsaileko Osoko bilkuran EAJk mozio alternatiboa aurkeztu zuela dio, baina azkenean ezin izan zutela eztabaidatu. Baina bere taldeak orduan esaten zuena dioela orain ere: batzorde bakoitzeko pleguak aztertu eta zer klausula aplika dakizkieken ikusi behar dela, baita arau-hausteei aurre egiteko mekanismoak eta zigorrak ere.

En el Pleno de febrero, prosigue en su intervención, su Grupo presentó una moción alternativa que finalmente no se pudo debatir; pero que ya entonces su Grupo decía que lo que había que hacer era plantear los pliegos correspondientes en cada comisión para ver qué cláusulas se pueden aplicar, y los mecanismos y sanciones en caso de incumplimiento.

Amaieran esan du serio eta arduratsu egin behar dela lan; teknikoak, txostenaren hasieran, adierazi duela klausula sozialak sartzea ez dela legezko betebeharra, erabaki politikoa baizik. Ibañez andrearen ustez, guztiok bat datoz klausulak kontratazio-pleguetan sartzearekin, eta, beraz, pauso garrantzitsuena eginda dagoela.

Finaliza afirmando que lo que hay que hacer es trabajar de una manera seria y responsable, y que ya el Técnico recoge al comienzo de su informe que la introducción de cláusulas sociales no es una obligación legal, sino una decisión política; y que cree que todos estarán de acuerdo en introducir cláusulas sociales,

Hemendik aurrera, lan egiteko moldea zehaztu beharko litzatekeela, pleguak aztertu, bakoitzari egoki zaizkion klausulak zehazteko, eta baliabide pertsonalak eta materialak zehaztu lan horretarako.

con lo que el paso más importante ya estaría dado, restando a partir de ahora definir un procedimiento de trabajo, estudiar los pliegos en las comisiones para concretar las cláusulas y establecer los medios materiales y personales para que sean cumplidas.

Ondoren Errasti jaunak hartu du hitza. Ibañez andreak esan duena errepikatu du, klausula sozialen gaia berriz azaldu dela mahai gainean alegia. Oraingoan lehen puntuarekin harritu direla dio, bertan baitio kontratatutako eta azpikontratatutako enpresek Europako Batasunak edo Espainiak ezartzen duten ingurumeneko, gizartegaietako eta lan-esparruko zuzenbidea bete behar dutela.

Interviene a continuación el señor Errasti quien afirma que al hilo de lo dicho por la señora Ibañez, se vuelve otra vez sobre el tema de las cláusulas sociales, y que además, esta vez les llama la atención el primer punto que recoge que se garantice que las empresas contratadas y subcontratadas cumplan el derecho ambiental, social y laboral de la Unión Europea, o el derecho nacional.

Azaldu du bere taldean ez datozela bat lehen puntuarekin, ez baititu langileen eskubideak bermatzen. Izan ere, Europa ez da erreferentea izan behar, ezta Espainia ere, non eskuma ultraliberalak nahi duena egiten duen eta eskubideak ezin diren bermatu.

En este punto, prosigue, no están en absoluto de acuerdo, ya que este aspecto no garantiza los derechos de los trabajadores, pues el referente no debe de ser ni Europa, ni España; pues en una Europa y en una España donde campea la derecha ultra liberal los derechos sociales no pueden ser asegurados.

Gaineratu du oso argi geratu zaizkiela kontuak Kontratazio teknikariaren txostena irakurrita, eta txostena EH Bilduk esandakoarekin bat datorrela. Gaineratu du garrantzitsuena plegu argi eta zehatzak idaztea dela, klausula garrantzitsuenak zehatzak izatea; horiek babesten baitituzte be-

Afirma así mismo que les parece muy clarificador el informe del Técnico de Contratación, y que va en la línea de lo que ha venido diciendo EH Bildu. Añade que lo que es más importante es establecer unos pliegos claros y definidos, y sobre todo, las cláusulas más importan-

harginen eskubideak. Pisuzkoa iruditzen zaio, era berean, kontrol- eta zigor-mekanismoak ezartzea.

tes, que para su Grupo son las que blindan las condiciones laborales dignas; siendo también importante establecer los mecanismos de control y las sanciones por incumplimientos.

Amaieran esan du bere taldea abstenitu egingo dela.

Finaliza su intervención anticipando que su Grupo se va a abstener.

Ondoren alkate jaunak hitz egin du. Hari txosten teknikoaren azken paragrafoa egin zaiola argigarri, eta mozioa proposatu ez duten taldeekin bat datorrela.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que él también había subrayado el último párrafo del informe del técnico, coincidiendo con lo manifestado por los grupos no proponentes de la moción.

Erantsi du agian Bozeramaileen batzordean erabaki beharko litzatekeela Osoko bilkurara zer gai ekarri, gaiak bertako kontuei buruzkoak izan edo errepikakorrak diren aparte. Edonola ere, halako kontuak nola egin bideratu arte, gaiek Osoko bilkurara iristen jarraituko dutela.

Añade que igual ha de abordarse en la Junta de Portavoces qué se trae a pleno o no, aparte de lo que afecte a lo local, o sea repetitiva; pero que mientras no se aborde, se seguirán trayendo.

Aurrerago esan du, talde guztiek abstenituz gero, mozioa aurrera joango dela, baina helburua kontrakoa dela; mozioaren alde ez egoteko arrazoia ez da horrenbeste gaia bera, edukia baizik. Bere taldeak aurka egingo duela bozka aurreratu du.

Dice más adelante que ha de advertirse que si todos los grupos se abstienen, la moción sale adelante, y que como el objetivo es que no salga, no tanto por el fondo de la misma, sino por su contenido íntegro, su Grupo votará en contra.

Aguirre andreak hitz egin du eta argitu dio Errasti jaunari lehen puntuan lan-hitzarmenak ere hizpide direla, eta hori iruditzen zaiola puntuko atalik pisuzkoena.

Interviene la señora Aguirre para indicar que en el primer punto mencionado por el señor Errasti se hablaba también de convenios laborales, y que es eso preci-

samente lo que le parece fundamental del punto.

Mozioa bozkatu dute eta ez dute onartu. Emaitzak:

Sometida a votación la moción, no se aprueba con el siguiente resultado:

Baiezko botoak: Aguirre Unceta (IRABAZI).

Votos afirmativos: Aguirre Unceta (IRABAZI).

Ezezko botoak: Alkatea, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga eta Iraola Iriondo (PSE-EE).

Votos negativos: Alcalde, Albistegui Zamacola, Sarasqueta Aramburu, Lejardi Galarraga, Arrizabalaga Larrañaga, Escribano Ruiz de la Torre, Telleria Echeverria, Benítez Dávila, Larrauri Arriaga y Iraola Iriondo (PSE-EE).

Abstentzioak: J Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren -Lamarain Cobok delegatutako botoa ere eman du-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU).uez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV).

Abstenciones: Cristobal Churruca, Abanzabalegui Aranguren - quien ejerce voto delegado por Lamarain Cobo-, Errasti Bernedo, Astigarraga Arrizabalaga (EH BILDU),Juez Garmendia, López de Guereñu Urisabel, Garate Larrañaga, Mendicute Rodríguez, Ibañez Anuncibay (Eibarko EAJ-PNV.

7. ATALA. EAJ-PNVren mozioa, Eibarko 1937ko bonbaketaren ingurukoa.

PUNTO 7º. Moción de EAJ-PNV sobre bombardeo ocurrido en 1937 en Eibar.

Idazkariak esan du apirilaren 7an EAJ-PNVk mozio bat aurkeztu zuela, eta ondoren erdibideko mozioa aurkeztu zutela EAJ-PNV, PSE-PSOE, EH Bildu eta Irabazi taldeek. Eta hori da irakurriko duen

Indica la Secretaria que el 7 de abril se presentó una moción por el grupo EAJ-PNV y que posteriormente se ha presentado una moción transaccional suscrita por los Grupos EAJ-PNV, PSE-PSOE,

testua:

"ERDIBIDEKO MOZIOA.

Azpian sinatzen dugun udal taldeok ERDIBIDEKO MOZIO hau egiten dugu Eibarko EAJ-PNVk aurkeztu duen mozioaren aurrean, Eibarko bonbardaketagatik Espainiako Gobernua barkamena eskatzera behartzeko xedez.

ERDIBIDEKO MOZIOA.

Eibarko Udal Osoko bilkurak hauxe erabaki du:

1.- Espainiako Gobernuari hertsatuki eskatzea aitor dezala matxinatutako ejertzitoak eta geroztiko gobernu frankistak izan zuten erantzukizuna 1937ko apirilaren 24an eta 25ean Eibar bonbardatu zuten eraso hartan eta bonbardaketa hark sortu zituen ondorio latz eta mingarri haietan; eta, era berean, eska diezaiola barkamena Eibarko herriari bidegabeki pairatu zuen sufrimendu guztiagatik.

2.- Eibarko Udalaren erabaki hau Espainiako Gobernuari, Diputatuen Kongresuari eta Senatuari jakinaraztea."

Mendicute jaunak hitz egin du lehena. Adierazi du laurogei urte beteko direla

EH Bildu e Irabazi, que es el texto que a continuación va a leer:

"MOCIÓN TRANSACIONAL.

Los grupos municipales abajo firmantes presentan la siguiente MOCIÓN TRASACCIONAL a la Moción presentada por el grupo municipal Eibarko EAJ-PNV para exigir al Gobierno de España que pida perdón por los bombardeos de Eibar.

MOCIÓN TRANSACCIONAL

El Pleno del Ayuntamiento de Eibar acuerda:

1.- Instar al Gobierno de España a que reconozca la responsabilidad del ejército sublevado y del posterior Gobierno franquista, del ataque, daño y sufrimiento, causado por el bombardeo de Eibar el 24 y el 25 de abril, así como a que muestre sus disculpas al pueblo de Eibar por todo el sufrimiento injustamente causado.

2.- El Ayuntamiento de Eibar notificará dicho acuerdo al Gobierno de España, al congreso de los Diputados y al Senado."

Interviene en primer lugar el señor Mendicute quien manifiesta que se cumplen

gaur eta bihar Eibar minez bete zen egunetik. Hainbat aitortza eta ekitaldi antolatu dira efemerideak gogoratzeko, eta bere taldearentzat garrantzitsua da altxatu zen armadaren eta haren ondoren etorri zen gobernu frankistaren erantzukizuna aitortzea.

Erantsi du beste erakunde batzuetan ere saiatu direla, eta haientzat gogobetetzailea dela Osoko bilkurara guztiek adostutako testua ekartzea; ez dadila izan alderdikeria, guztiak batuko dituen zerbait baizik.

Mozio hau ekarri dute uste dutelako Espainiak beste estatu batzuen eredua jarrai dezakeela, non antzeko pausuak eman dituzten.

1997an, Roman Herzogek adierazpen solemne bat egin zuen, Alemaniako legebiltzarrak onetsi zuena; haren bidez barkamena eskatu zuen Gernikako bonbardatzeagatik. Eta Gernikakoaz hitz egiten denean, gainerakoez ere hitz egiten dela; hala nola, Eibar, Gernika baino bi egun lehenago bonbardatu zutena.

Beste adibide batzuk ere aipatu ditu: Obamak minutuko isilunea egitea eta besarkada bat ematea Japoniako lehen ministroari, Hiroshimaren oroimenez, edo Hollandek Frantziako kolonialismoaren krimenak onartzea.

Erantsi du guztiek ezagutu behar dutela

hoy y mañana ochenta años que Eibar se llenó de dolor, y que junto a otra serie de reconocimientos y eventos que se están realizando para recordar la efeméride, desde su Grupo consideran importante que se inste a reconocer la responsabilidad del ejército sublevado y del posterior gobierno franquista.

Añade que lo han intentado también desde otras instituciones y que para su Grupo es muy satisfactorio que se traiga al Pleno un texto acordado por todos los Grupos, y que no sea una cuestión partidista; sino que una a todos.

Traen esta moción, prosigue, porque consideran que España puede tomar ejemplo de otros Estados que ha dado pasos similares.

Continúa diciendo que en 1997 Roman Herzog hizo una declaración solemne, que fue ratificada por el Parlamento alemán, pidiendo disculpas por el bombardeo de Gernika; y que cuando se habla del bombardeo de Gernika, se está hablando también del bombardeo del resto de municipios que fueron bombardeados, entre ellos Eibar, que fue bombardeado dos días antes que Gernika.

También es otro ejemplo, prosigue, cuando Obama hace un minuto de silencio y da un abrazo al primer ministro japonés en recuerdo a Hiroshima, o cuando Hollande asume los crímenes del colonialismo francés.

Añade que todos deben de tener presen-

gure herriaren sufrimendua eta pairatu zutenen mina ulertu.
Aurrerago esan du badela bideo bat Interneten, non fletxa beltzen bonbardaketak Eibarri eragindako sarraskia ikus daitekeen. Bonbardaketa hartan aireko indarrek hartu zuten parte, Condor legioa eta Aviatzione Legionariak; altzairua erori zen zerutik behera eta 74 hildako eta 97 zauritu egon ziren.
Laurogei urteren buruan, iritsi da unea Gobernuak aitor dezan Estatuak egin zuena, une hartan altxamenduaren armadak eta gero gobernu frankistak. Iritsi da unea Espainiak bere kargu har dezan dagokion erantzukizuna, beste herri batzuek egin duten bezala. Mendicute jaunak hizketan jarraitu du: gobernu bidegabea zen, baina hori ez da aitzakia, eta onartu beharra dago erantzukizuna militar kolpezaleena izan zela, espainolak, italiarrak eta alemanak.

Amaieran esan du zoriontzekoa dela egiten ari direna; hau da, Eibarri barkamena eskatzeko testua onartzea, hiria birrinduta geratu eta horrenbeste odol isuri zen unetik laurogei urte eta gero.

Errasti jaunak hartu du hitza ondoren eta

te el sufrimiento de nuestro pueblo y entender el dolor de los que lo sufrieron.
Dice más adelante que hay un vídeo en internet donde se ve la masacre sufrida por Eibar con el bombardeo de los flechas negras, donde intervino la fuerza aérea de la Legión Condor, y la Aviatzione Legionaria, donde hubo una lluvia de acero y donde murieron 74 personas y otras 97 fueron heridas.
Ochenta años después, prosigue, es momento para que el Gobierno reconozca la responsabilidad que tuvo el Estado, en aquel momento el ejército golpista, y posteriormente el gobierno franquista, y es momento para que España asuma la responsabilidad política que le corresponde, al igual que otros países lo han asumido. Es verdad, continúa, que era un gobierno ilegítimo, pero ello no vale como excusa, y se debe de asumir que la responsabilidad fue de aquellos militares golpistas, españoles, italianos y alemanes.
Finaliza afirmando que es de felicitarse que ochenta años después de que la ciudad fuera reducida a cenizas y de que se derramara tanta sangre, sean capaces de aprobar este texto en el que se revindica el hacer un gesto de disculpa hacia el pueblo de Eibar por aquel bombardeo.

Interviene a continuación el señor Errasti

bera ere pozik dago talde guztiek erdibideko mozioa onartu dutelako, horrek argi utzi duelako guztiak direla gai sentitzeko orain dela 80 urte gertatutakoa.

quien afirma que su Grupo también se alegra de que todos los grupos hayan acordado una moción transaccional; lo que deja claro que todos son sensibles al suceso ocurrido en Eibar hace ochenta años.

Hala ere, negargarria iruditzen zaie egoera bere taldean, esku arten duten testua nahien aitorpen hutsa izango delako eta Eibarren geratuko delako. Izan ere, ez dute uste agiriak biderik egin dezakeenik Espainiako Gobernuan. Aipatu ditu azkenaldiko bi albiste, Espainiak ez duela barkamenik eskatuko bistan utzi dutenak; are gehiago, kontrako bidetik doala irudikatzen dutenak. Alde batetik, Gallardón, Nerjan, Utrera Molina frankistaren hil-kutxa eusten ari, bertaratutakoek *cara al sol* kantatzen zuten bitartean. Bestetik, Espainiako Gobernuko Defentsa Ministerioko kargudun garrantzitsuak, Melillan, Sanjurjo kolpista generalaren hileta-elizkizunean.

Añade que les parece que lamentablemente se quedará en una declaración de intenciones del municipio de Eibar, pues ponen en duda el recorrido que pueda tener por el Gobierno español, pues dos noticias muy recientes hacen ver que el Gobierno no va a pedir perdón; sino que va por el camino contrario; y así, Gallardón en Nerja sosteniendo el féretro del franquista Utrera Molina, mientras los presentes cantaban “cara al sol”, y altos cargos del Ministerio de Defensa del Gobierno español en el funeral del general golpista Sanjurjo, en Melilla.

Txanda bukatzeko esan du *bide okerretik goazela, Espainiako gobernuak kolpistei eta diktadoreen lagun hurkoei begirunea erakusten dien arten.*

Concluye diciendo “mal vamos mientras el Gobierno español siga por el camino de rendir pleitesía a los golpistas y manos derechas de dictadores”.

Alkate jaunak hartu du hitza ondoren, eta adierazi du bere taldea ere pozik dagoela erdibideko mozioa onartu dutelako.

Interviene a continuación el señor Alcalde quien afirma que Grupo también se alegra de haber firmado una moción transaccional.

Erantsi du ez dela bera hasiko Espainiako gobernua defendatzen, baina kontuan hartu beharra dagoela 1937ko gobernu zile-

Añade que no va a ser él el que defienda al Gobierno español, pero que hay que tener claro que en el año 1937 el go-

gia Errepublikako Gobernua zela eta armadak eraso egin ziola.

bierno legítimo era el Gobierno de la República y que fue atacado por un ejército sublevado.

1939 eta gero, Francoren gobernua har liteke zilegitzat eta hari eskatu erantzukizuna; baina ez egungo Gobernuari, printzipioz gobernu zilegien ondorengo baita. Norbaiti eskatzekotan, gobernu frankistari eta altxatutako armadari eskatu beharko litzaiokeela erantzukizuna. Baina egungo gobernuari ez, Errepublikarena bezain zilegia baita.

A partir del año 39, continúa, fue el Gobierno de Franco al que se puede considerar legítimo y exigírsele responsabilidades, pero que no toca pedir perdón al Gobierno actual, que es en principio heredero de gobiernos legítimos; y en todo caso, se podrá exigir responsabilidades al Gobierno franquista y al ejercito sublevado, pero no al Gobierno actual, que es un gobierno legítimo, al igual que lo era el de la República.

Erantsi du horregatik aldatu dutela hasierako mozioa, ulertarazten zuelako garai hartako gobernua zerbaiten erantzule zela; aitzitik, erasoa pairatu zuen gobernua izan zen.

Añade que por este motivo se ha modificado la moción inicial, porque se entendía que el Gobierno vigente en aquel momento era responsable de algo, cuando fue un gobierno atacado.

Alkateak erantsi du bere ustez egungo gobernua oso sentikor izan behar dela eta erantzukizunak eskatu: mina ulertu behar du, iragana ulertu, bidegabekeriak salatu; baina barkamena eskatuko balu, okerren bat egin duen gobernu baten ondorengo gisa azalduko litzateke. Alemanian hala izan da, Hitlerren gobernuak berak jo zuelako erasoa; Obamak ere barkamena eskatu du, AEBetako gobernuak erasotu zuelako Hiroshima, eta egungo gobernuak garai hartakoen ondorengo dira. Baina Espainiako egungo gobernua ez dela Francoren gobernuaren ondorengo —tarteka haren itxura hartu badakioke ere— legezko eta zilegi den gobernua dela,

Entiende que el Gobierno actual, prosigue, tiene que ser muy sensible y exigir responsabilidades, y entender el dolor, comprender el pasado, denunciar las injusticias, pero pedir perdón como gobierno sería porque es heredero de un gobierno que ha hecho algo mal. Y que eso en Alemania ha podido ser porque fue el gobierno de Hitler el que atacó, y Obama también, porque fue el gobierno americano el que atacó Hiroshima; y esos gobiernos son sucesores de aquellos; pero añade que el Gobierno español actual no es sucesor del Gobierno franquista, aunque a veces tengan sus ramalazos, pero legalmente es un gobierno

Errepublika zen bezala.

Amaitu aurretik, esan du mozioaren alde egingo duela bere taldeak, guztiok ados jartzeko nahikoa parametro baititu.

legítimo, al igual que el de la República.

Finaliza afirmando que en cualquier caso, su Grupo apoyará la moción, ya que contiene los parámetros suficientes como para que se pongan todos de acuerdo.

Bozkatu egin dute mozioa eta aho batez onartu dute.

Sometida a votación la moción se aprueba por unanimidad.

8. ATALA. Galde-eskeak.

PUNTO 8º. Ruegos y Preguntas.

Ez dago.

No se plantea ningún ruego ni pregunta.

Eta gainerantzeko gairik ez dagoenez, eta arratsaldeko zortzi eta hogei izanik, Alkate jaunak bilera altxatzen du, guzi honetaz, nik Idazkari Orokorrak fede ematen dudalarik.

Y no habiendo más asuntos que tratar, y siendo las veinte horas veinte minutos, el Sr. Alcalde levanta la Sesión, de todo lo cual yo, la Secretaria General, doy fe.